



## **ANTZUOLA-AIHERRA 25.urteurrena**

1984tik 2009ra, hainbat urtez Antzuola eta Aiherrako herritarren arteko laguntasunak eta harremanak bizirik iraun du, eta horren erakusle dira hainbat gertakizun. Badu 25 urte, alde batetik André eta Aña Mari Martinonek, eta bestetik Juan Antonio Iturbe eta Ima Beristainek bi herri hauen arteko bide bat zabaldu zutela.

Gure errealitate hurbilean badira zonbeit herri gureak bezalakoak, anaikidetza edo adiskidetasunezko loturen lekuko direnak. Berezitasunak berezitasun, Antzuola eta Aiherraren arteko harremana berezia dela ezin uka. Herritarrek sustatu harremana, herritik sortu eta azkartua, hauxe da gure altxorra.

25 urte hauetan, herriko hautetsi andana bat horren lekuko izan gara eta harreman honek zinez aberastu gaituela ezin uka. Hau da, badira 25 arrazoin bide hortan segitzeko eginahala sustatzen eta indartzen dituztenak, Antzuola eta Aiherraren arteko harremanak gu denak aberasten bait gaitu.

Beraz, azken 25 urteetan alkate edo auzapez izanak hemen biltzen gara honako hau adierazteko nahiarekin:

- Eskerrak eta gure ikustatea eskeini nahi diegu, duela 25 urte Antzuolarren eta Aihertarren arteko harremanari ateak ideki zizkiotenei, hau da, André eta Aña Mari Martinoni, eta Juan Antonio Iturbe eta Ima Beristaini.
- Azken 25 urteetan bezala, harremanak azkartzeko gomita egin nahi genieke, bai Antzuolako eta bai Aiherrako herritar eta elkarteei.
- Duela 5 urte, anaikidetzaren 20. urtemugaren kari, Antzuola eta Aiherrako udal edo herriko etxeek sinatu hitzarmenarekin bat egiten dugu.
- Azken 25 urteetan bezala gerora ere izanen diren herriko hautetsiei eskatzen diegu Antzuolarren eta Aihertarren arteko anaikidetza lagunt dezaten, tokian tokiko eta ahal den sustengua eskeiniz.
- Antzuolako eta Aiherrako herritarrak, bi herri hauen arteko anaikidetzaren 25. urtemugaren ospakizunetan izanen diren pesta eta ekitaldietan parte hartzera gomiatu nahi genituzke.
- Bai Antzuola eta bai Aiherrako udal eta herriko etxeek adierazpen honekin bat egin dezaten eskatzen dugu.